EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

UDAL-BRIGADEN AZTERKETARI BURUZKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Zerbitzu Orokorren batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko azaroaren 26an, EH Bildu udal taldeak kontrol-mozio bat aurkeztu zuen Udalbatzan bi eskaera eginez: alde batetik, Udal Gobernuak brigaden egitura azter zezala zerbitzuan hobekuntzak egiteko eta, bestetik, LEP bat egiterako orduan lehentasuna eman ziezaiola udal-brigaden gaiari.

Nahiz eta Udal Gobernuak kontrol mozioaren aurkako botoa eman zuen, brigadei buruzko azterketa bat martxan jarri du. Hilabete batzuk pasatu dira, eta oraindik ez da txostenik aurkeztu eta ez dago argi noiz amaituko den ikerketa, nahiz eta Udaleko sindikatuek behin eta berriz eskatu duten egutegi bat zehaztea.

Dagoeneko Udal Gobernuak aldaketak egin ditu udal-brigadetan -txoferren kasuan, esate baterako-, nahiz eta azterketa bukatu gabe egon eta ondoriorik ez izan.

IEK/ CIF P2007 400A/ TEE/R EL 01200 697 10655 n 1 2011- 06

EH Bildu udal taldeak begi onez hartzen du Udal Gobernuak udal-brigaden inguruko azterketa martxan jartzeko hartu duen erabakia, baina edozein azterketa edo diagnostikok kronograma bat eskatzen du halabeharrez; bestela prozesua asko luzatuko delako eta helburu zehatzak ez direlako definituko.

Apirilaren 18ko batzordean ez zen halakorik zehaztu.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala udal-brigaden azterketarekin bat datorren kronograma bat, azterketaren ondorioak aurkezteko epea ezarriz.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta azterketaren amaiera data konpartitu ditzala langileen batzordearekin, behin baino gehiagoetan eskatu duten bezala.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia